

BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure bezeroekiko harremana mistoa izango da. Aurrez-aurreko harremana gauzatzeaz gain, online bidezko hizketaldi, bilera eta solasaldiak ere izateko aukera luzatuko dugu. Gainera, gure enpresaren propioa den aldizkari bat sortzeko aukera ere izan dezakegu, horrela, gure bezero diren eta etorkizun batean izango direnekin kontaktatzeko aukera zabalagoa eskeintzeko.

Gure enpresan bezeroek betetzeko ebaluazio-sistema bat izango dugu, non hauek, era anonimoan, euren iritzia emateko aukera izango duten. Honi esker, hobekuntzak jaso eta hauek aldaketa bat jasateko modua aztertu, bilatu eta gauzatu dezakegu. Azken hau instituzioekin partekatuko genuke, gure lanaren profesionaltasun eta hobetze-grina azaltzeko. Bezero partikularren kasuan, ate-irekietako hitzaldien bitartez gurekin harremana mantendu nahi dutenei gonbidapena luzatuko diegu, beraien beharren eta nahien arabera lan egin ahal izateko.